



Osakidetza




EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

LUZAPEN-AKORDIOA, OSAKIDETZAK AGERRALDI EPIDEMIOLOGIKO POSIBLEETAN EUDEL ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDE ETA ORGANISMOAK MATERIALEZ HORNITZEKO BALDINTZAK ZEHAZTEN DITUEN OSAKIDETZAREN ETA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (AURRERANTZEAN, EUDEL) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARENA.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 1ean.


BILDU DIRA:



Alde batetik, **Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea**, Osakidetzako Administrazio Kontseiluko presidentea den aldetik, Ente Publikoaren ordezkari gisa jarduten duena, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan aurreikusitako Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialen 7. artikuluan esleitutako ahalmenen arabera.

Eta bestetik, **Gorka Urtaran Agirre jauna**, **EUDELeko presidentea** den aldetik, EUDELen Estatutuek ematen dizkioten eskumenak baliatuz (2016ko apirilaren 15eko Batzar Orokorrean onartu ziren estatutu horiek).

ADIERAZI DUTE:



I.- Gobernu Kontseiluaren 2020ko uztailaren 21eko Erabakia aplikatuz, 2020ko urriaren 1ean,, agertutako alderdiek Lankidetza-hitzarmena sinatu zuten, zeinaren bidez ezartzen diren Osakidetza Ente Publikoak agerraldi epidemiologiko posibleetan Eudel eta haren mendeko erakunde eta organismoak materialez hornitzeko baldintzak. Hitzarmenaren indarraldia 2021eko martxoaren 31ra artekoa ezarri zen, eta hura luzatzeko aukera ezarri zen epe hori amaitzean hitzarmena berritza egokitzat jotzen bazen.



Osakidetza



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

II.- Ez denez gainditu SARS-COVID-19ak sortutako krisi sanitarioa eta erakunde hartzaileek krisiari aurre egiteko material sanitarioak behar izaten jarraitzen dutenez, 2021eko otsailaren 23an Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 21eko aurreko erabakia luzatzeko Erabakia hartu du.

III.- Indarraldia 2021eko martxoaren 31ra arte luzatuko da; nolahi ere, osasun-krisia gainditu eta merkatua normaltasunera itzultzen bada, data hori baino lehen indargabetu ahalko da.

IV.- Aipatutako Erabakiaren laugarren puntuan xedatutakoari jarraikiz: *"Horretarako, Osakidetza eta erakunde hartzaile bakoitzaren artean sinatutako lankidetzahitzarmenen luzapen-akordioak sinatuko dira. Luzapen horiek apirilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean egongo dira indarrean"*.

Hori kontuan hartuta, agertutako alderdiek, beren burua behartzeko gaitasuna onartzen dutenez, honako hau

ADOSTU DUTE

Lehenengoa.- Luzatzea 2020ko urriaren 1ean, sinatutako Lankidetzahitzarmena, zeinaren bidez ezartzen diren Osakidetza Ente Publikoak agerraldi epidemiologiko posibleetan Eudel eta haren mendeko erakunde eta organismoak materialez hornitzeko baldintzak.

Bigarrena.- Indarraldia 2021eko martxoaren 31ra arte luzatuko da; nolahi ere, osasun-krisia gainditu eta merkatua normaltasunera itzultzen bada, data hori baino lehen indargabetu ahalko da hitzarmena.



Osakidetza



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Hirugarrena.- Osakidetzak hornitzen dituen materialak Luzapen-akordio honen **1. ERANSKINEAN** adierazitakoak dira. Bertan, Akordioa sinatzen den egunean indarrean dauden kontsumoen zenbatespenak eta gutxi gorabeherako prezioak zehazten dira, aipatutako material bakoitzerako.

Laugarrena.- 2020ko urriaren 1ean, sinatutako Hitzarmenaren gainerako klausula guztiak mantendu egiten dira.

Eta ados daudela frogatzeko, alderdiek Akordio honen hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Gorka Urtaran Agirre jn.
EUDELeko presidentea

Gotzone Sagardui Goikoetxea and.
Osakidetzako Administrazio
Kontseiluko presidentea



1. ERANSKINA

Materiala	Neurria	Kantitatea	Batez besteko prezio haztatua*	Guztira
MANTAL IRAGAZGAITZ EZ- BERRERABILGARRIA			3,89	
MANTAL IRAGAZGAITZ BERRERABILGARRIA			7,40	
MANTAL ARRUNTAK (TNT)			1,83	
BABES OSOKO JANTZIA			26,78	
OINETAKO BABESAK			0,05	
BESOETAKO BABESAK			0,08	
GEL HIDROALKOHOLIKOA (LITROAK)			3,68	
TXANOAK			0,08	
ESKULARRU ARRUNTAK (NITRILOZKOAK)	S		0,11	
ESKULARRU ARRUNTAK (NITRILOZKOAK)	M		0,11	
ESKULARRU ARRUNTAK (NITRILOZKOAK)	L		0,11	
ESKULARRU ARRUNTAK (NITRILOZKOAK)	XL		0,11	
ESKULARRU ARRUNTAK (BINILOZKOAK)	S		0,00	
ESKULARRU ARRUNTAK (BINILOZKOAK)	M		0,00	
ESKULARRU ARRUNTAK (BINILOZKOAK)	L		0,00	
ESKULARRU ARRUNTAK (BINILOZKOAK)	XL		0,00	
FFP2 MASKARAK			2,46	
FFP3 MASKARAK			2,44	
MASKARA KIRURGIKOAK			0,00	
IIR MASKARA KIRURGIKOAK			0,30	
ARMAZOI INTEGRALEKO BEGI-BABESA			8,00	

ofeuz

Oharra*: prezio horiek orientazio gisa baino ez dira ematen, eta Osakidetzaaren informazio-sistemek 2020ko irailaren 17an kalkulaturakoak dira; biltegi zentralizatutik ateratzen den unean stockaren batez besteko prezio haztatua fakturatuko da.

[Handwritten marks]